

2023KO EKAINAREN 22AN EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia
Data: 2023-06-22
Ordua: Goizeko 08:00tan
Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

LEHENA.- ALKATEORDEEN IZENDATZEAREN KONTU EMATEA.

BIGARRENA.- UDALBATZAREN BATZAR ARRUNTAK EGITEKO EGUN ETA ORDUEN FINKATZEA.

HIRUGARRENA.- KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIAREN ERAKETA.

LAUGARRENA.- BATZORDE TXOSTEN-EMAILEEN ERAKETA ETA OSAKETA.

BOSGARRENA.- KIDE ANITZEKO ORGANOETAN PARTE HARTZEKO UDALBATZAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2023ko ekainaren 22an, goizeko 08:00tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ezohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziapean.

LEHENENGO PUNTUA:

ALKATEORDEEN IZENDAKETAREN KONTU EMATEA

Azaroaren 28ko 2568/1986 E.D. onarturiko Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren (aurrerantzean AJE) 46.1 artikuluan xedatzen denaren arabera alkateordeen izendaketaren kontu ematen da, hau da:

- ❖ Lehenengo Alkateordea: Olaia Garaioa Moriones.
- ❖ Bigarren Alkateordea: Maite Bizkarrondo Arzallus.

BIGARREN PUNTUA:

UDALBATZAREN BATZAR ARRUNTAK EGITEKO EGUN ETA ORDUEN FINKAKETA

Idazkari-kontu-hartzaileak, Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduak, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, 38.a) artikuluan xedatutakoaren berri eman du.

Adierazi du artikulua horren arabera, Udalbatza eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ez ohiko bilkura deitu behar dela, besteak beste Udalbatzaren osoko bilkuren maiztasuna erabakitzeko.

Jarraian Alkate Andreak Udalbatzari honakoa proposatu dio: Udalbatzak ohiko osoko bilkura egitea hiru hilabete behin, hileko hirugarren ostegunetan, eguerdiko 15:00tan

Lehenengo ohiko bilkura irailaren 21n egingo da.

Udalbatzak, aho batez, onartu egin du Alkateak egindako proposamena.

HIRUGARREN PUNTUA:

KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIAREN ERAKETA

BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN SORKUNTZA ETA ERAKETARAKO PROPOSAMENA

Idazkari-kontu-hartzaileak Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduak, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, 38.a) artikuluan xedatutakoaren berri eman du. Adierazi du artikulua horren arabera, Udalbatza eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ohiko edo ezohiko bilkura deitu behar dela, besteak beste informazio batzorde iraunkorrak sortzea eta horien osaera erabakitzeko.

Ondoren Alkate Andreak Batzorde Informatzaile iraunkorren sorkuntza eta eraketari buruzko proposamenaren berri ematen du:

<i>Batzordearen izena</i>	<i>Kideen zenbatekoa</i>
Batzorde Informatzailea Orokorra	5

Batzorde honek apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116 artikulua xedaturiko Kontuetarako Batzorde Bereziari dagozkion gaiak bere gain hartuko ditu.

Hori dela eta, Udal Batzarrak **ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA.-

Batzorde informatzaile iraunkorrak sortzeko Alkateak eginiko proposamena onartzea.

LAUGARREN PUNTUA:

KIDE ANITZEKO ORGANOETAN PARTE HARTZEKO UDALBATZAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Idazkari-kontu-hartzaileak azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren, toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren, 38.c) artikulua xedatutakoaren berri eman du. Adierazi du artikulua horren arabera, Udalbatza eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ohiko edo ezohiko bilkura deitu behar dela, bestek beste kide anitzeko organoetan parte hartzeko ordezkariak izendatzeko, Udalbatzaren eskumenekoa denean.

Alkate Andreak, ondoren, Udalak parte hartzen duen erakundeen estatutuak aintzat hartuta, honako proposamena bozkatzeko dei egin du:

Erakundea		Ordezkaria	Ordezkariordezkaria
GIPUZKOAKO KONTSORTZIOA	UR	Oihana Amundarain Zubillaga	Peio Iriarte Irisarri
TOLOSALDEKO NEKAZARITZA ELKARTEA	MENDI	Peio Iriarte Irisarri	Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
TOLOSALDEKO HILTEGIA		Olaia Garaioa Moriones	Maite Bizkarrondo Arzallus
TOLOSALDEA GARATZEN		Oihana Amundarain Zubillaga	Olaia Garaioa Moriones
ZABORTEGI AMANKOMUNITATEA		Juan Ramon Gurrutxaga Lasa	Peio Iriarte Irisarri
GIPUZKOAKO ELKARTEA	BASO	Peio Iriarte Irisarri	Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
TOLOSALDEA TOUR		Maite Bizkarrondo Arzallus	Olaia Garaioa Moriones
BERRIA BERRI, GALTZAUNDI ETA PRENTSA BULEGO BEZALA		Maite Bizkarrondo Arzallus	Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
UDALBILTZA		Oihana Amundarain Zubillaga	Olaia Garaioa Moriones

BASO ELKARTEA	Peio Iriarte Irisarri	Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
EUDEL	Oihana Amundarain Zubillaga	Peio Iriarte Irisarri

Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, goizeko 08.20 ordu zirenean.

Elduainen, 2023ko ekainaren 22an.

O.E.

Alkateak,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Udaleko idazkari-kontu-hartzailea,

Maria Pilar Garmendia Miguel



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023KO EKAINAREN 22KO EZHOIKO OSOKO BILKURAREN AKTA1.pdf

CSV/EKS:

SINAcf104023-6a18-4dad-bd98-21ca99e30d4b